

Museoen ibilbidea

4,29 km



ZIRKULARRA
ERRAZA

9m



www.walkingandrinning.es



Vitoria-Gasteiz

Bidea Gasteizen barrena doanean, bertako museoak mugarriztat hartuta, bat-batean gelditzeak merezi du benetan, eraikinen kanpo-itxuraz eta barruan gorde dutenaz gozatzeko.

Floridatik (📍1) abiatuko gara, hau da, hiriko parke berezietako batetik, bere historiagatik eta bere barietate botaniko ugariengatik.

Ibilbidearen lehen zatia Senda Ibilbidean barrena doa. Alde batean, Arma Museoa, Ajuria Enea Jauregiaren ondoan. Nabarmenezkoa da giza bilakaeran zehar sortutako askotariko armen bilduma oparoa, baita Gasteizko guduaren gaineko erakusgarri ugariak eta nazioarteko harribitxiaren aukera zabala ere, samuraien armadurak barne.

Aurrez aurre, Arabako Arte Ederren Museoa (📍2) dugu, eta bertara sartzeko aukera ere badugu, lorategietan barrena ibiltzeko eta, gora begira, Augustin Zulueta jauregi historikoa miresteko. Eraikin eklektikoa da neurri batean, Kuban egindako dirutza baten eta Elvira Zulueta eta Ricardo Augustin senar-emazteen maitasunaren gainean altxatu baitzen.

Lehen museogunea atzean utzi eta aurrera jarraituko dugu Frai Francisco ibilbidetik; kalearen bi aldeetara ametsezko etxeak miretsiko ditugu, tarte horri ukitu estetikoak ematen dioten etxeak.

Gure erritmoan, Maria Sortzez Garbiaren elizara iritsiko gara, gure katedral berrira alegia, Arte Sakratuaren Museo zoragarria biltzen duena. Atzerago, Andre Maria Zuriaren plaza ikusiko dugu, Gasteizko Guduaren omenezko monumentuarekin, baina hobe dugu Jesusen Zerbitzarien kaletik jotzea, ia-ia kalearen amaieran, Natur Zientzien Museoarekin topatzeko.



📍 1



📍 2

Walking & Running VITORIA-GASTEIZ

Gora begiratzen badugu Erdi Aroko dorre ederra ikusiko dugu, hain zuzen ere, XVI. mendean, Iruñako eta Arabako Otxanda andrearen bizilekua izan zena.

Bidean aurrera eginez, Gasteizko Erdi Aroko hiribilduko sarrera nagusietako batean sartuko gara, eta, hortik abiatuta, muinoa igotzeari ekingo diogu. Behin gailurrera iritsita, muinoaren beste aldetik behera egingo dugu Aiztogile kaleraino, eta bertan gure hurrengo museoa aurkituko dugu, edo bi museo batean, zehatzago esanda: Bibat Museoa (📍 3), Arabako Arkeologia Museoaren eta Fournier Karta Museoaren fusioa.

Museo bakoitzak berezko interesa dauka bere gaiengatik eta bere historiarengatik, eta Karta Museoaren kasuan nabarmentzekoa da, gainera, XVI. mendean eraikitako Bendaña Jauregian kokatuta dagoela. Gotiko berantiarreko dekorazio-elementu erantsiak gorabehera, jauregiko fatxadak Erdi Aroko etxe gotortu baten itxurari eusten dio.

Bibat multzoaren ingurutik behera eginez, muinoaren beste tarte bat egingo dugu, Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoraino (📍 4). Eraikin berezia da, batez ere, eraikinaren hiru laurdenak kaleko mailaren azpitik daudelako; horregatik, bodega-museoa ere esaten zaio. Frantzia kaletik eta Bake kaletik aurrera eginez, Olagibel kalearekin bat egingo dugu, gure abiapuntura iristeko: Florida parkea(📍 5).



interesguneak

- Arabako Arte Ederren Museoa.
- Artium Arte Garaikidearen Euskal Museoa.
- Bibat Museoa.

informazio gehiago

www.walkingandrinning.es
www.turismo.euskadi.eus

VITORIA
GASTEIZ
green capital



EUSKADI
BASQUE COUNTRY
#Basqueexperience